

ANALISIA

Ez ote dut ulertu Euskaraldia?



Onintza Irureta Azkune

@oirureta

Pello Jauregi belarriprest izango dela irakurri dut Berria-n eta seko harritu naiz. Egun batzuetara, egunkari berari esker, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikako sailburu Bingen Zupiria ere belarriprest izango dela jakin dut. Dirudienez, ez dut Euskaraldia zer den ulertu.

Euskaraldiaren azken txanpan sartu baino dezente lehenago ezagun bati esan nion ahobizi izango nintzela. Ez nuen zalantzarik hark ere gauza bera esango zuela. Ez, ordea: "Nik oraindik ez dut erabaki. Ahobizi banaiz euskarari eutsi beharko diot... belarriprest erosoagoa da". Berak harro esaten zidan beti euskaraz egiten zuela eta temati gainera. Bada, hala-kola hiztun ahaldundua bi txapen artean paparraren zein jarri pentsatzen ari zen. Badakit norberak aukeratu behar duela rola, baina nik lasai asko esan nion berak ahobizi behar zuela izan, ez zegoela beste aukerarik. Handik aste batzuetara etorri zitzaidan esanez baietz, hura ahobizi izango zela, inolako zalantzarik gabe.

A ze sorpresa joan den astekoa. Pello Jauregi Eusle metodologiarekin urtetan ari-tu denak eta Lasarte-Orian asmatu zituzten belarriprest eta ahobizi egitasmoaren emaitzak neurtu zituen EHUKo irakasleak belarriprest izango zela zioen. Hasieran, kazetariaren hanka-sartzea izango zela pentsatu nuen, baina ikusita eskarmen-tu handiko kazetariaren elkarrizketa zela akatsaren aukera erori zitzaidan. Hala dio kazetariak sarreran: "Dioenez bere burua ez du prest ikusten toki guztietan lehen hitza euskaraz egiteko eta euskarari eusteko.

Hala egingo du maiz, baina ez duenez beti egingo, belarriprest txaparekin ibiliko da. Hori aldarrikatu du: hobe dela belarriprest txaparekin ahobizien jokabideak hartzea, eta ez alderantziz". Denok ari gara horrela-ko kasuak ikusten. Ahobizi txapa hartuko duela jakin eta "horrek ahobizi txapa? Ba ote daki zertara doan?". Eta ziurrenik askok ez lukete ahobizi izan behar (batzuk txapa errazegi ez ote diren ari hartzen), ezta belarriprest ere. Batzuek agian ez lukete parte hartu behar Euskaraldian. Hori da gauza bat eta beste bat Pello Jauregi batek esatea ez dela ahobizi izango,

ez duelako uste beti euskarari eusteko prest egongo denik.

Ni ahobizi izango naiz eta ez dakit beti-beti eutsiko diodan euskarari.

Hala ez badut egiten ez naiz apaizaren-gana konfesatzera joango, eta ez ditut espero kale kantoian nire bekatua entzun eta harrika hasiko direnak.

Bingen Zupiriak ildo beretik hitz egin du: "Bizi naizen inguruan ez da batere erraza euskaraz hitz egitea; etxean bai, baina hortik kanpo, Bilbon bizi naizen auzoan oso zaila da. Haur eta gazteekin beti naiz ahobizi. Belarripresten ariketa egin nahi dut; euskara gehiago entzun, eta gonbidapen modura erabili nahi dut, gaitasuna duen edozeinek euskaraz egin diezadan. Belarriprest aktiboa izango naiz: hitz egitean, euskaraz egingo dut".

Bateren batek esan dit zuri eta beltza-ren artean aukeratzen ari naizela, baina nik hala pentsatzen dut: edo bagara edo ez gara. Euskaraz bizi nahi dugunon eta euskaraz egiteko arazorik ez dugunon rola ahobizia da. Rol horrek ahalduztzen lagunduko digula uste dut, sinesten dut. Belarriprest, (profil horretako hiztunentzat) atzerapausoa da. ■



EKONOMIAREN TALAIAN

Enplegua, lanbide heziketaren bidez



Juan Mari Arregi

2030 urtera arte Espainiako Estatu-
tuan erdi-mailako lanbide heziketak (LH) eskaintzen duen prestakuntza-ko %65 profesional gehiago behar-ko dira, eta goi prestakuntzako %35 gehiago –goi mailako LH dutenak eta unibertsitari graduatuak–, *Skill Forecast* txostenaren arabera, Europar Batasuneko Cedefop eta Eurofund agentziek egina. Ikerketak dioenez, enplegua batez ere handituko da zerbitzuen sektorean, eta erronka izango da, Espainiako Estatuak lanbide heziketan eskolatze tasa baxuenetakoa baitu Ekonomia Lankidetzak eta Garapenerako Erakundeko gainerako herrialdeekin alderatuta: ikasleen %12 dago arlo horretan matrikulaturik, batez besteko %26ren oso behetik.

Euskal Herria ez da salbuespena. Are gehiago, "Euskal Herriko industria langileak bilatzen ari da Espainiako Estatutik kanpo. Gaur egun LHn dauden plazekin ez da aseko 4.0 industriaren eta antzeko puntako sektoreen eskaria". Juan Carlos Tejadaren hitzak dira, CEOE espainiar patronaleko formazio zuzendaria. Txoko honetan aspaldi ari gara LH bultzatzeko beharraz hitz egiten. 70eko hamarkadan enpresa eta herri askotan zeuden maisutza-eskolak desagertu zirenetik, gazteak unibertsitatera joan dira enplegu segurua-ren bila. Akats barkaezina. Zenbat unibertsitari ote dagoen langabezian, zenbat ez dagokion lanak egitera derrigortuta, zenbatek ezkututaz dute euren egiazko formazioa curriculumean aukeraketa prozesuetan baztertu ez ditzaten...

Beharrezkoa da administrazio publikoek lanbide heziketari prestigioa eta bultzada ematea, enplegu duina lortzeko bidea izan baitaiteke eta haren bidez gazte-langabezia prebenitu. Etorkizuneko enplegua, bai gaur egun eta baita epe ertainean ere, lanbide heziketaren bidez lor liteke. ■